

OIARTZUNGO XXXII. SAGARDO EGUNA

Desafioa eta gaueko txosna, aurtengo berritasunak

Aurtengo Sagardo Egunak berritasunak ekarriko ditu. Goizean desafioa egingo dute lezoarren eta oiartzuarren artean. Gauean txosna jarriko dute Kontzejupean, antolakuntzan sartu diren gazteen eskutik.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Oiartzungo Sagardo Egunari tradizio edo ohitura izaera eman diote orain arte egin diren 31 ekitaldiek. Aurtengoak aurreko ekitaldien ildo jarraituko du, baina denboraren legeak hala eabaten duenez, berritasunekin etorriko da XXXII. ekitaldia.

Ohi bezala, azokarekin hasiko da

eguna. Hainbat produktu erosteko aukera egongo da 10:00etatik aurrera: arropa, bitxiak, ezta... Garaiko barazkien hutsunea sumatuko du Juantxo Ribera antolakuntzan dabilen kideetako batek: «Berez baserriko produktuekin antolatu nahi genuen azoka, baina badi-rudi oraindik goizegi dela».

Azokak 14:00ak arte iraungo du, eta bitarte horretan izango da beste zerekin gozatu. 11:30ean hasiko da aurtengo berritasunetako bat: oiartzuarren eta lezoarren arteko desafioa. Riberak azaldu duenez, antolakuntza taldean dabilen gazte batek Lezoko lagunak ditu, eta ekainaren 10ean unibertsitate izaera duen udalerrian egingo duten Euskal Jairako antolatu duten ekitaldietarako erronka bota zieten. «Guk lehenagotik geneukanez, esan nion taldekideari lezoarrei deitzeko eta desafioa botatzeko», esan du Riberak. Desafioaren lehen atala, beraz, Oiartzunen izango da eta Lezokoa errebantxa izango da.

Herri kiroletan arituko dira, baina testuingurura moldatuta eta sagardoaren kulturara eramanda. «Txingak izan beharrean, sagardo botilen kutxak izango dira. Lokotx-biltzea izan beharrean, sagarrak jasoko dituzte. Sagar horiek zaku batera botako dituzte, eta zaku horrekin plazari buelta pare bat-edo emango dizkiote».

Desafioa bukatzean, «erlojuaren kontra ibili gabe», herriko bederatzi baserri-tako sagardoak dastatu ahal izango dira. 14:00ak inguruan, plazan jarritakoak pixka bat jasoko dituzte, eta antolakuntzako kideak zein laguntzaileak bazkaltzera joango dira. Elkarte batekin akordioa egin dute, eta haiek izango dira bazkaria egingo dietenak. Ez dute bazkaldu ondorengoa asko luzatuko, 16:30ean bueltatu behar baitira lanera.

Oiartzungo Estankoa
Tabakoa, loteria eta opariak
Tel.: 943 49 16 11
Doneztebe plaza, 11
OIARTZUN

Ongi pasa Sagardo Eguna!

Pacheco Izeta
Loredenda

LoreTxoooootx!

www.pachecoizetaloreak.com
943 49 18 68
MAMUT merkatalgunea
Oiartzun

sagardotegia
BALEIO
sagardo naturala
Urte osoan zehar
sagardo botilen
salmenta

943 49 13 40
626 69 30 74
OIARTZUN



Arratsaldeko dastaketan hemezortzi sagardoren artean aukera daiteke. Erdia herriko baserrietakoak izango dira, eta beste erdia, sagardotegietakoak.

Alaine Aranburu

17:00etan haurren txanda izango da, Euskal Herria plazan. Abaraxka ludotekak eta Kabitxo tabernak elkarlanean antolatatu dituzte jolasak eta txokolate jatea. «Etorkizuna dira, eta horiek mimoz zaindu behar dira», esan du Riberak.

18:00etan ekitaldi jendetsuena izan ohi dena hasiko da: sagardo dastaketa. Goizeko bederatzi sagardo motei beste bederatzi sagardotegietako zukua batu kozaie. Egunari izena ematen dion likidoa dastatzeko aukera izango da 20:00ak ingurura arte. Aurreko urteetan

orduan bukatzen zen egitaraua, baina aurten gauera arte luzatuko da: ihoteetan Kontzejupean jartzen duten txosnaren antzekoa irekiko dute. «Gu talde irekia gara, eta bi neska talde etorri zitzaizkigun, esanez ihoteetako txosnan adin guztietako oiartzuarrak elkartzen direla, eta oso giro ona sortzen dela», gogorazi du Riberak. Proposamena onartu, eta taldearekin bat egiteko gonbita egin zie-

ten, taldean lau lagun ibiltzen baitziren. «Beraiek izango dute txosnaren ardura. Gauzak egiteko gogo baldin badute, denon artean gauzak askoz samurrago egin daitezke. Orain hamar lagun gara taldean, eta gauzak errazago doaz, lanak banatuta, eta norberari pisu bat kentzen diogu. Indarrez sartu dira gazteak, ardurak banatu ditugu, eta oso gustura gabiltza». ✕



London
School of languages

Zugandik gertu

london-school.com
Donostia | Oiartzun | Astigarraga | Urnieta

**HIZKUNTZ-ZENTRO
BAT BAINO ASKOZ
GEHIAGO**

Ingelesa | Frantsesa



**GOZATU
SAGARDO
EGUNAZ**

@academia.london
London School of Languages



Ongi pasa
Sagardo
Eguna!

Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - www.aitonetxe.com

OIARTZUNGO XXXII. SAGARDO EGUNA



lazko Sagardo Egunean, Doneztebe plaza jendez beteta. Alaine Aranburu

Sagardoa dastatzen egunaz gozatzeko egitaraua

Egun osorako egitaraua prestatu dute Girizia elkarteko kideek XXXII. Sagardo Egunerako. Orotara hemezortzi izango dira sagardoa herriaren erdigunera ekarriko duten ekoizleak, handiak eta txikiak.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Sagardo Egun batek, bere horretan, badu jendea erakartzeko gaitasuna. Gainera, antza denez, bihar eguraldiak lagunduko du, euri trazarik ez delako ageri meteorologiaz dakitenen diskurtsoetan. Horri guztiari sagardoa dastatzeaz gaindiko jarduerak gehitzen bazaizkio, egun biribilaz gozatzeko aukera baliatzeko hautua

egingo dutenak asko izan daitezke, oartzuarrak eta bisitariak. XXXII. Oiarzungo Sagardo Egunak osagai asko jarri ditu mahaiaren gainean —kasu honetan Doneztebe plazan— hauteskunde go-goeta egun atsegina pasatzeko.

Bi une goren izango ditu sagardozaleen eta herri giroaren maitaleen bilkurak (ondoko koadroan egitarau osoa). Lehen goizean da; 10:00etan hasiko den azokarekin batera, 11:30ean, Oiarzungo

EGITARAUA

Goizean

10:00-14:00. Azoka Doneztebe plazan.

11:30. Herri kirol *desafiyua*, Oiarzunen eta Lezoren artekoa, plazan. Buelta-koa ekainaren 2an egingo dute Lezon.

Ondoren. Herriko sagardoa dastatzeko aukera Doneztebe plazan.

Arratsaldean

17:00. Haur jolasak eta txokolatada Euskal Herria plazan.

17:00. Sagardo dastaketa Doneztebe plazan. Sagardotegiak: Arkale, Baleio, Biandiz, Cidrerie, Erroilbide, Goiko Lastaola, Harritxuita, Igoin, Larregain, Lindurenborda, Lizeaga, Monondi, Oialume Zar, Oianleku, Ordozelai, Petritegi, Txurumurru, eta Urkabe.

eta Lezoko talde bana herri kirol desafioan jo eta su murgilduko dira. Ohorea baino gehiago izango dute jokoan sagardo kaxak eramaten, sagarrak biltzen, eta horiek zakuan garraiatzen. Errebantxa ekainaren 10ean iritsiko da, Lezon.

Arratsaldeko bide orriaren erdi-erdian sagardo dastaketa handia izango da. Giriziako antolatzaileek orotara hemezortzi sagardo klase (erdiak herrikoak) probatzeko aukera emango die parte hartzaileei egun osoan zehar. Beraz, arratsaldekoan ere tragoska edan, pintxoak jan, eta irribarre batekin espero diren 25 graduekin kale giroan murgiltzeko osagairik ez da faltako. ✕

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Sagardo egun
txukuna pasa!

Irunen eta Beran

943 63 45 36

aurkituko gaituzu

www.goieko.com